

Euskararen erabilera- -planak: ASPACE

Olatz Osa

Sarrera

ASPACEn entitatearen euskalduntzeari begira egindako planaren aplikazioari buruzko nondik norakoak azalduko ditugu aurkezpen honen bidez, alegia planteamendu teorikotik praktikara dagoen jauzia agertzen saiaturako gara. Horrela, planaren aplikazioari buruzko zehaztasunak eman aurretik, laburki bada ere, ezinbestekoa da aplikazio aurreko urratsei, aurrekariari eta diseinuari buruzko hainbat argibide ematea.

ASPACEn euskararen erabilera areagotzeko planaren helburua, hitzak dioen bezala, entitate horretan euskararen erabilera sustatzea da. Hiru urterako diseinatu den plan honetan oinarritzko helburuak lortzera joko da. Honenbestez, hiru urteren buruan, eginkizun ohiko eta arruntetan euskara ere ahoz nahiz idatziz erabiltzea izango da helburua.

Duela urtebete eskas ekin genion inplementazio-faseari. Amaitzeke dago beraz, hiru urterako diseinatutako planaren aplikazioa eta hemen emango diren azalpenek lehenengo epealdian bildutako esperientziari erantzuten diote.

Azpitarratzekoa iruditzen zaigu ASPACEn erabilera-plana egiteko beharra eta nahia entitate honetatik bertatik sortu zela esatea, alegia ASPACE beraren ekimenez eta eskariz jarri dela abian proiektua. Horrek, erabaki soila dirudien arren, ondorio zuzenak eragin ditzake diseinu eta aplikazio-eginkizunetan. Eta hauxe esan nahi du: edo langile-multzo batek euskararen aurrean oso jarrera aldeko eta aktiboa duela eta entitatea erabakia hartzera bultzatu dutela; edo zuzendaritzak euskara bultzatzeko jarrera aldeko eta aktiboa duela; edo langileak zein zuzendaritzak oso jarrera aktiboa dutela. Edozein kasutan ere, plana entitatearen ekimenez eta eskariz etorri izana funtsezkoa da langile zein zuzendaritzakideek planak eskatuko dituen eginkizunetan parte hartzeko.

Entitatearen eskariz diseinatu eta aplikatzen ari den plan hau, hala ere, guztiz borondatezkoa da. Alegia, egun lanean ari diren langileak ez daude euskara-eskoletan, komunikazio-zirkuluetan edo planak jasotzen dituen beste jardueretan parte hartzera behartuta. Borondatezko prozesua da beraz.

ASPACEn entitatearen onespenezekin, ILAZKI Euskaltegiko teknikari bat ari da hasiera batean diseinu-lanak egiten eta ondoren aplikazio-zere-

ginetan. Ikusiko dugun bezala, planean bertan jasotzen diren euskara-eskolak pertsona honek berak ematen ditu. Ilazkiko teknikari honekin batera lankidetzan estuan aritu da ASPACEko kide bat ere. Koordinatzaile-lanak egiten dituen bigarren kide honek teknikariak behar dituen datu, azalpen eta ASPACEkiko bitartekari-lanak egiten ditu.

Planaren aplikazioan egiten ari garena ulertzeko, aurrez egindako urratsak modu laburrean aurkeztuko ditugu. Ondoko eskeman ikus daiteke urratsez urrats jarraitutako bidea:

Bideragarritasun- -azterketa

Erabilera-plana egiteko ASPACEren eskaria jaso genuenean, ez ginen zuzenean planaren diseinuan sartu. Bideragarritasun-azterketa egiteari ekin genion, lehenik eta behin entitatearen ezaugarri, egitura, egoera linguistikoa edota planarekiko atxikimendu-maila ezagutzeko. Hiru atal aztertu genituen bideragarritasun-azterketa horretan: ASPACE entitatearen ingurunea, ezaugarriak eta hizkuntza-egoera. Aipatu erakundearen barne-azterketa egiteko, besteak beste, bertako langileei inkesta bati erantzunarazi zitzaion euskara-maila ezagutu eta planarekiko atxikimendua eta euskara bultzatzeko motibazio eta nahiak ere ezagutzeko.

Erakundearen hizkuntza egoera aztertzeke, *Indexpla* aplikazio informatikoan oinarritu ginen. *Indexpla*, erakunde batek une jakin batean duen hizkuntza normalizazio-maila objektiboki neurtzeko eta plan baten ondorioz gertatutako bilakaera ezagutzeko tresna da. Aurrerago ikusiko dugunez, aplikazio honek jarraitzen duen eskemaren baitan zehaztu ditugu helburuak.


Laburbilduz bada, honako eskemari jarraituz ASPACEren ezaugarri hauek azpimarratu eta izan ditugu kontuan bideragarritasun-azterketa egiterakoan:

- *Ingurunea*
 - Egoitzen kokapena.
 - Lan-eremua.
 - Sektorea: mundu asistentziala.
- *Erakundearen azterketa*
 - Lan-zerbitzu mota: elbarritasun zerebrala duten gaixoen asistentzia.
 - 8 egoitza ezberdinetan kokatuta: Goietxe-Donostia, Bergara, Irun, Beasain, Urretxu, Azpeitia, Zarautz eta Eibar.
 - 130 langile.
 - Langile gehienak finkoak.
 - Langileen %70 euskalduna edo ia-euskalduna.
 - ASPACE erabilera-planean murgiltzeari buruz langileen jarrera ona.


Diseinua

ASPACEren eguneroko eginkizun arruntak euskaraz ere gara daitezen bilatzen duen plan honek, aldi berean, ASPACE erakundearen sail ezberdinak hartzen ditu kontuan, eguneroko lanean sail bakoitzak dituen berezitasunak eta eginbeharrak arrunt ezberdinak baitira. Hain zuzen,

.1: *ASPACEn euskararen erabilera areagotzeko plana: urratsak*



.2: *Indexpla: erakundearen hizkuntza egoera. 1. neurketaldia.*



kudeaketa-organoa, administrazioa, guraso-bazkideak eta fisioterapeuta-monitore-hezitzaile-laguntzaileak... Horiek guztiek dituzten eginkizunak eta betebeharrak erabat ezberdinak dira.

Horiek horrela, eta guztietan ere helburu orokor bera erreferentziatzen hartuta, helburu espezifikoa finkatzera jo genuen. Horretarako, bai plana diseinatzeko eta baita hizkuntza garapenaren ebaluaziorako ere, *Indexpla* aplikazio informatikoa eta beronen egituraketa izan dugu oinarri. Alegia, sei arlo nagusitan banatzen da diseinatutako plana eta arlo horietan biltzen da, hain zuzen, entitate honen jarduerak guztia.

- Irudia eta errotulazioa.
- Pertsonalaren hizkuntza-egokitzapena.
- Hizkuntza erabiltzeko irizpideak.
- Kanpo-erabilpenerako dokumentazioa.
- Kanpo-komunikazioa.
- Barne-komunikazioa.

Arlo bakoitzeko helburuak finkatu eta horiek erdiesteko jarduerak definitu genituen ondoren. Esan gabe doa hau guztia lortzeko epeak zehaztu zirela, ebaluazio-irizpideak finkatu eta hainbat baliabide eta bitarteko ere jarri zela.

ASPACEko langileek beren lana euskaraz burutu ahal izan dezaten, hiru oinarri hartu ziren kontuan:

- Komunikazio-zirkuluak.
- Euskara-eskolak.
- Laneko interbentzioak.

Helburu orokorra

ASPACEren erabilera orokorra gutxienez *Indexpla*-ren %75eraino areagotzea eta finkatzea 3 urteko epean.

Helburu Espezifikoak

1. Irudia eta errotulazioa.–

Kanpoaldeko eta barruko errotuluetan, publizitatean eta propagandan euskararen erabilera gutxienez %75eraino areagotzea.

2. Pertsonalaren hizkuntza egokitzapena.–

ASPACEko pertsonalak (kasu bakanak salbu) bere betebeharrak euskaraz burutzeko behar dituen ezagupenak lortzea.

3. Hizkuntza erabiltzeko irizpideak.–

ASPACEko jarduerak guztietan, dokumentazioan, komunikazioan, pertsonalaren aukeraketan, promozioan... hizkuntza-irizpideak definitzea.

4. Kanpo-erabilpenerako dokumentazioa.–

Euskal Herrian erabiliko den kanpo-dokumentazioan, euskara %85ean erabiltzea.

5. Kanpo-komunikazioa.–

Euskal Herriko entitate ezberdinekin idatziz zein ahoz izandako harremanetan, euskara %85ean erabiltzea.

6. Barne-dokumentazioa.—

ASPACEk erabiltzen dituen barne-komunikazio eta dokumentazioan, euskara %85ean erabiltzea.

Aipatu helburu espezifiko bakoitza lortzeko, helburu operatibo batzuk zehaztu genituen eta horietara iristeko jarraitu beharreko jarduerak ere bai. Jarraian, bi helburu espezifikoetako dagozkien helburu operatibo eta jarduerak ageri dira adibide gisa:

A) Helburu operatiboak eta jarduerak

1. Irudia eta errotulazioa.—

1.1. Kanpo-errotuluetan eta seinaleetan euskararen presentzia %100era iristea.

- a Zein errotulu aldatu erabaki.
- b Aldaketarako prozedurak zehaztu.
- c Terminologia egokitu.
- d Hizkuntza zalantzak argitu.
- e Errotuluak euskaratu eta jarri.

1.2. Erakundearen iragarkietan eta publizitatean euskararen erabilera ziurtatzea eta ele bitan argitaratzea.

- a Euskarazko mezu publizitarioak prestatu edo eskatu.
- b Publizitate euskarrietan txertatu.
- c Publizitatea inprimatu.

1.3. Iragarki tauletako ohar eta jakinarazpenetan euskararen presentzia %85ekoa izatea.

- a Langileriarri erabakiaren berri eman.
- b Iragarkirako jakinarazpenak egiten dituen pertsonalari beharrezko hizkuntza ezagutza eman.
- c Iragarki taulako jakinarazpen iraunkorrak euskaratu.

B) Helburu operatiboak eta jarduerak

2. Pertsonalaren hizkuntza egokitasuna

2.1. ASpaceko langileek beren lana euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-ezagupenak ziurtatzea.

- a Euskara-eskola, komunikazio-zirkulu eta lan-interbentziotan parte hartuko dutenak identifikatu.
- b Bakoitzaren hizkuntza ezagutza-maila neurtu.
- c Eskola-saioak, komunikazio-zirkuluak eta lan-interbentzioak antolatu eta bidean jarri.

Ebaluazioa

Diseinuak erabilera-planaren ebaluazioa egiteko irizpideak biltzen ditu. Oraindik aplikazioaren hastapenetan gaudenez, ebaluaziorik egin ez badugu ere, honako puntuak jarraituko diegu ebaluatzerakoan:

1. Helburuen ebaluazioa.–

- Helburuen egokitasuna.
- Formulazioa.
- Koherentzia.

2. Jardueren ebaluazioa.–

- Helburuetarako egokitasuna.
- Nahikotasun-maila.
- Prozedurak.
- Epeak.
- Baliabideak.

Planaren aplikazioa

Planaren diseinua ASPACE erakunde osorako eginda badago ere, aplikazioa Goietxe Donostiako egoitzatik hasi genuen. Batetik, egoitza nagusia bera denez, langile eta jarduera gehienak bertan biltzen direlako. Eta bestetik, berez korapilatsu suertatzen den lana gehiago ez zailtzearren. Zuhurtiaz jokatu nahi izan genuen eta Goietxen erabilera-planak izango duen garapenaren arabera beste egoitzetara ere zabaltzen hasi.

Planaren aplikazioari dagokion lehenengo eginkizuna, diseinu-fasean ere egin arren, ASPACEko antolakuntza eta funtzionamendua zehatz-mehatz ezagutzea izan zen.

Behin lan-eremua ezagututa, ezarritako helburuak lortzeko hainbat bitarteko antolatu eta abian jartzea egokitu zitzaion teknikariari. Honela, diseinuan jaso bezala, euskararen oinarritzko ezagutza lortu beharra zuten langileentzako *euskara-eskolak* antolatzeari ekin zitzaion bai eta jadanik euskalduntze-maila oinarritzkoa zutenentzat trebatze-saioak eratzeari ere, hain zuzen, *komunikazio-zirkuluak* eta zuzeneko *lan-interbentzioak*.

Komunikazio-zirkuluak eta euskara-eskolak antolatzekoan bi puntu hartu ziren kontuan. Kostua, ASPACEk bere gain hartua, eta denbora. Denborari dagokionez, entitateak ordu erdiz murrizten ditu langilearen lan-orduak, egunekoak, alegia eskoletan parte hartuko duen langileari ordu erdiko baimena ematen zaio horretarako, eta beste ordu erdia langileak lanorduz kanpoko orduetatik jartzen du.

Komunikazio-zirkuluak.– Komunikazio-zirkuluak dira plan honen euskarrik behinenetarikoak. Horiek ondo antolatu eta bideratzea ezinbestekoa da plangintza behar bezala burutzeko. Saio honen helburuak ASPACEn euskara sustatzeko parte hartzea, motibazioa eta trebakuntza dira.

Euskaraz aritzeko gai diren pertsonez osatu ziren komunikazio-zirkuluak, gero, gutxieneko maila lortuko dutenak ere sartuz joateko. Halaber, lan-arlo berean ari diren langileek osatzen dute taldea. Bi izan ziren erakunde honetan sortu direnak: Kudeaketa-organoko pertsonalak osatutakoa batetik, eta fisioterapeuta, monitorea, laguntzaile eta abarrek osatua bestetik. Hamabostean behineko maiztasuna dute komunikazio-zirkuluek.

Zirkuluetako gaiak planaren eta euskarazko trebakuntzaren gainekoak izango dira beti eta langileek markatuko dituzte beren eginkizunak, helburuak, epeak...

Esan bezala, bi komunikazio-zirkulu sortu ziren:

- a Kudeaketa organoko 8 kidek osatutako komunikazio-zirkulua, non behean irakur daitezkeen gisako dokumentuak landu diren. Planteamendu gisa itzulpenak egitea saihestu da eta ahal izan den neurrian euskarazko dokumentuak sortu dira egitura eta testu berriak sartuz.
 - Bilera-deialdia.
 - Ordutegiak.
 - Fakturak.
 - Inprimakiak.
 - Gurasoei bidaltzeko oharrak.
 - Fax paperak.
 - Beste zentrotarako informazio-orriak...
- b Monitore, fisioterapeuta, laguntzaileak.
 - Sendagai eta botikinerako material zerrenda.
 - Barne-fitxak.
 - Gurasoentzako jakinarazpenak...

Euskara-eskolak.– Laneko betebeharrak eta komunikazioa euskalduntzeko gutxieneko maila HABEren programaren 6. urratsa finkatu genuen. Talde bakarra sortu zen 12 pertsonen osatua. Guztiz borondatezkoa izan zen partaidetza. Astean lau orduz aritu dira eta ahalegin berezia egiten da eskola materiala eta gaiak beren lanarekin lotura izan dezaten.

Laneko interbentzioak.– Hizkuntza teknikariaren gidaritzapean burutzen dira laneko interbentzio guztiak. Bakarka, langileak laguntza osoa izaten du, bere lana euskaraz egitean sor dakizkiokeen zalantzak argitzeko. Gainera egindakoa zuzendu eta akatsak komentatzeko aukera izaten da. Edozein langileri eskaintzen ahal zaio laguntza hau. Baina bereziki, komunikazio-zirkuluetan eta euskara-eskoletan parte hartzen dutenekin aritzen da.

Trebatze-saioetan eta euskara-eskoletan, ASPACEko langileria osoaren %35 inguruk hartu du parte, kudeaketa organoan daudenak, administrazioak zein monitore-logopeda-laguntzaile edo jantokiko pertsonalak. Hala ere, planaren lehen aplikazio-fase honetan oso kontuan hartu dira zuzenean planean sartu ez ziren langileak eta zorrotz zaindu da, lan-jarduera ezberdinak abian jarrita, inongo momentutan enpresari eragiten dion jarduera batetik at edo baztertuta senti ez daitezen. Hala nola, bilera bereziak egin ditu teknikariak planean parte hartu ez duten pertsonekin, informazioa idatziz pasa zaie, etab.

Arestian ikusi dugun diseinuak hainbat arlo biltzen ditu bere baitan. Lan-prozedurak eta lan-jarduerak arlo guztietan batera hasteak izan ditzakeen arriskuez jabetuta, lehentasunezko arloak izendatu ziren, esan bezala lan sakabanaketa ekidin asmoz. Beraz, teknikariaren egitekoa izan zen ASPACEren hizkuntza egoera eta arlo bakoitzaren eragin-mailak kontuan izanda lehentasunezko arloak zehaztea. Honela, lehen urte eskas honetan *Irudia eta errotulazioa, pertsonalaren hizkuntza egokitzapena*

eta *barne-komunikazioa* ezarri dira lehentasunezkoztat eta ondorioz hauen inguruko lan-jarduerak landu dira ia erabat.

Hilabete hauetan egindako lanaren emaitza eta ASPACEren hizkuntza egoeran izandako bilakaera neurtzeko goizegi da oraindik, denbora-tarte honetan egindako lana oso positiboki baloratzen dugu hala ere. Hasieratik langileek euskararekiko erakutsitako atxikimendu eta motibazio altuak bere horretan dirau oraindik. Euskara-eskoletan eta komunikazio-zirkuluetan parte hartu duten langileek bigarren epealdian ere jarraitzeko nahia adierazi dute eta poliki-poliki bada ere, hizkuntzari dagokionez, jadanik aldaketa batzuk hasi dira nabaritzen arlo batzuetan. Esaterako, hizkuntza-paisaia ia erabat elebiduna da eta dokumentu eta inprimakiak elebitan egin edota betetzen dira hainbatetan.

Baloraziorik egiteko goizegi dela esan dugun arren, planaren aplikazioan aurrera egin dugun neurrian, eragile batzuk sumatu eta ondorioztatu ditugu. Batzuk, ezustean, bidean aurkitzen diren eragileak dira; beste batzuk, berriz, aldez aurretik ere antzeman genituenak:

- Ezusteko baten ondorioz ASPACEko koordinatzaileak bere zeregina utzi behar izanak eragina izan du planaren garapen naturalean. Izan ere, ILAZKiko teknikari eta koordinatzaile honen arteko talde-lana herren gelditu zen eta beti ere oztopo gehiago sortzen dira informazioa trukatzekoan, eginkizunak koordinatzerakoan...
- Entitate, enpresa edo gisako erakunde batean hizkuntza-aldaketak gertatzeak, aldez aurretik uste genuen bezala, izugarritzko zailtasuna du. Urteetako ohitura eta inertzia apurtzea oso zaila egiten da. Planen zuzenean parte hartzen dutenen esanetan, askotan hizkuntza bera ikastea baino zailago da ohiturak aldatzea.
- Lan-munduan, normala denez, garrantzia duena lana bera aurrera ateratzea da eta praktikan, estu eta presaka zabiltzanean, bigarren mailan gelditzen dira hizkuntza irizpide oro.
- Planarekin zerikusi zuzenik ez duten kanpo-faktoreek, entitatearen egitura aldaketa batek esate baterako, edo barne arazoez... erabat baldintzatzen dute edo dezakete plana eta beronen aplikazioa. ASPACEren kasuan ere eragin zuzena izan dute kanpo-arazoez. Horren aurrean, egokiago iritzi diogu momentu batean planaren aplikazioan etenaldi bat egiteari, plana baldintza ez egokienetan aplikatzen jarraitu eta kontrako efektuak lortzeari baino.
- ASPACEko langileen %70 inguru euskalduna edo ia-euskalduna izatea aldeko faktorea izan da. Ezagutzak erabilera ziurtatzen ez badu ere, hainbat jarduera aurrera ateratzeko ez dugu lehenengo ezagutza-maila gutxieneko bat lortu arte zain egon behar izan.
- Euskara-eskoletan eta komunikazio-zirkuluetan parte hartu dutenen motibazioa altua izan da. Talde bakoitzaren dinamizatzaile, eragile eta zirikatzaille-lana egin duen pertsona bat edo bi egoteak eragin oso aldekoa izan du.

- ASPACEko zuzendaritza eta erabakiguneez begi onez bultzatu dute hasieratik proiektua.

Indexpla aplikazio informatikoaren eskutik, ASPACEren hizkuntza egoerari buruzko datuekin ekin genion planari. Urte honetan, hainbat neurri jarri ditugu abian eta jada horren emaitzak ezagutzeko, bigarren neurke-ta bat egiteko egokiera izan dugu. Balorazio orokor eta sakonagoak geroagorako utzita, orain arte egindako lanak zein norabide hartu duen ikusteko parada ematen digute jarraian ikus daitezkeen Indexplaren bi grafikoek.

ILAZKI Euskaltegiak, bere aldetik, joandako urteotan bildutako eskar-mentuaz aberasturik, gogo betez helduko dio berriz ere ASPACE entita-tearen euskararen erabilera-planari eta, oro har, lan-munduaren euskalduntzeari.

.3: *INDEXPLA. 2. neurketa eta INDEXPLA bi neurketen arteko alderaketa*

